



ESTREINALDIA: Juan Mari Beltranek flauten inguruko proiektu berria aurkeztuko du zuzenean, datorren maiatzaren 14an Donostian

Euskal musikaren ikertzaile, eragile eta irudi garrantzitsuenetako den **Juan Mari Beltran** musika-instrumentuen inguruko egitasmo berri batekin dator: **liburuz eta CDz osatutako "Soinu-tresnak euskal herri musikan" entziklopedia**.

Euskal musika-tresnen inguruan duen ezagutza guztiari difusioa emango dio beraz musikariak entziklopedia honen bitartez, izan ere, **gure herri ondarean erabili izan diren hots soinu-tresnen bilduma zabala** osatzeko helburuarekin, **urtero ale bat argitaratuko du datozen lau edo bost urtetan**, musika-tresna talde ezberdinenei inguruko nondik norakoak xehetasunez azalduz.

ZUZENEKO EMANALDIAREN ESTREINALDIA

Proiektu berri honen **zuzeneko estreinaldia datorren maiatzaren 14an izango da** **Donostiako Victoria Eugenia Club-ean**. Emanaldi berezi honetarako sarrerak eskuragarri daude [Donostia Kulturaren webgunean](#).

Hala, instrumentu horien bereizgarri diren soinuak **zuzenean ezagutzeko aukera izango da proiektua aurkezteko prestatutako txulubite malabite...** **izeneko kontzertu berezi baten bidez**, eta aerofonoen soinu eta ezaugarri desberdinak zeintzuk diren ezagutu ahal izango da emanaldi berezi honetan.

Kontzertuan, Beltranekin batera, **Errege Belda** (akordeoia), **Ander Barrenetxea** (ahotsa, atabala, danborra, panderoa eta perkusioak) eta **Aitor Gabilondo** (ahotsa, guitarra) izango dira Victoria Eugenia Club-eko hitzorduan. Juan Mari Beltranek, bere aldetik, honako musika-tresnak joko ditu: txistua-danbolina,

xirula-*ttunttuna*, flautak, txilibituak.

EUSKARRI TRADIZIONALA ETA DIGITALA

2022 honetan kaleratu berri da lehen liburu-CDa Soinuenea Fundazioaren esku, eta, esan bezala, **aerofonoen multzoko flautek osatzen dute entziklopediaren lehen zatia**. Euskal Herrian flauta deritzen haizezko soinu-tresna ugari ditugu; hain zuen ere, aski ezaguna den txistuaz gain, ezezagun zaizkigun beste hainbat flauta mota ere jo izan dira gure lurretan: abrikot hezurrezko txilibituak, pistoi flautak, xirula, kanaberazko zeharkako flautak eta abar.

“1999an euskal soinu-tresnak aurkezteko Euskal Herriko Soinu-Tresnak CD-ROM interaktiboa sortu genuen Elhuyar Fundazioarekin, baina material hori zaharkitua geratu da”, azaltzen du Beltranek. Orain, artikulu horiek berritzearaz gain, **euskarri fonografiko bat argitaratuko da**. Era berean, **entziklopedia tradizional moduan proposatzen den egitasmoak Soinuenearen webgunean atal digitala izango du**, eta idatziak hainbat material multimediaz osatuko dira.

Flauta joaldiak bideoak:

<https://www.youtube.com/watch?v=RbWE3QSd1T0>

<https://www.youtube.com/watch?v=m7mNFJstv8E>

Kontzerturako sarrerak salgai hemen:

<https://tickets.donostiakultura.eus/selection/event/date?productId=101843098222>

ESTRENO: Juan Mari Beltran presentará el 14 de mayo en Donostia su nuevo proyecto sobre el universo de la flauta

Juan Mari Beltran, uno de los investigadores y promotores más importantes de la música vasca, viene con un nuevo proyecto sobre los instrumentos vascos: la enciclopedia “*Soinu-tresnak euskal herri musikan*” (“**Los instrumentos musicales en la música popular vasca**”).

A través de esta enciclopedia, el artista dará difusión a los instrumentos de la música vasca, y es que, con el objetivo de crear una **amplia colección dedicada a los sonidos de los instrumentos tradicionales vascos que componen nuestro patrimonio cultural**, ha creado una enciclopedia en la que explica todos los entresijos de los mismos, y **cada año se publicará una nueva edición** dedicada a otro grupo de instrumentos.

ESTRENO EN DIRECTO

El concierto de **estreno de este nuevo proyecto tendrá lugar el próximo 14 de mayo en el Club Victoria Eugenia de Donostia**. La cita tendrá lugar a las 19:30 horas y las entradas ya están a la venta en [la página web de Donostia Kultura](#).

Así, se podrán conocer más en detalle las características y diferencias entre estos instrumentos, en un concierto en directo preparado expresamente para presentar el proyecto. **El concierto, que llevará el título de *txulubite malabite...*, servirá para conocer a fondo los diferentes sonidos de cada uno de los instrumentos.**

En el concierto, junto con Beltran estarán en escena **Errege Belda, Ander Barrenetxea y Aitor Gabilondo**.

SOPORTE TRADICIONAL Y DIGITAL

La **primera edición del disco-libro, publicado de la mano de Soinuenea Fundazioa, reúne los instrumentos aerófonos**, y es que en el País Vasco hay diversos tipos de flautas; más allá del txistu, en nuestro territorio también se han tocado otro tipo de instrumentos como son los txilibitus, la xirula, flautas traveseras, etc.

“En 1999 publicamos un CD-ROM interactivo junto con la Fundación Elhuyar sobre los instrumentos vascos, pero ese material ha quedado caduco”, explica Beltran. Ahora, además de renovar esos artículos, se publicará un **soporte fonográfico**. Del mismo modo, más allá de ser una **enciclopedia tradicional, en la web de Soinuenea habrá un apartado digital** compuesto de diverso material multimedia en torno a estos instrumentos.